

ZALLALOKALAK

Zalla udalerrian saltoki eta/edo zerbitzu profesional berriak martxan jartzeko alokairuarekin laguntzeko eta lehendik daudenak modernizatzeko diru-laguntzen "Zallakolokalak" programaren oinarri arautzaileak.

Enkarterri Berri ZerbitzuakSLk, 2017ko uztailaren 28an eginiko Administrazio Kontseiluan, onartu egin zituen saltoki eta/edo zerbitzu profesional berriak martxan jartzeko alokairuarekin laguntzeko eta lehendik daudenak modernizatzeko diru-laguntzen 2017ko "Zallakolokalak" programaren oinarri arautzaileak, Zalla udalerrian jarduera ekonomikoa sustatzeko asmoz. Hona hemen oinarriaren testua:

Oinarri hauek 2017ko diru-laguntza horien esparru orokorra arautzen dute:

0.Zioen azalpena.

Zallako Udalak ekonomia eta enplegua sustatzeko zenbait neurri jarri zituen abian 2013an, horien artean Zallalokalak programa.

Programa hori egin ondoren, ikusi zen komenigarria izan litekeela etorkizunean beste deialdi batzuk ateratzea, erregistraturiko balorazioak eta emaitzak kontuan harturik. Era berean, ikusi da beharrezkoa dela horrelako neurriak kudeatzeko beste eragile bat edukitzea.

Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk, ekonomia aktibatze eta enplegua sustatzeko neurrien eragile gisa, bere garaian hasitako lan horrekin aurrera jarraitzen du. Hori dela eta, programa hau argitaratu du, mikroenpresa gisa (10 langile baino gutxiago eta 2 milioi eurotik beherako fakturazioa) erabiliko diren lokalak alokatzeko eta/edo egokitzeko, hala merkataritzaren esparrukoak nola jarduera ekonomikoa sorraraziko duten zerbitzu profesionalen arlokoak.

Programaren bidez, bi laguntza mota hauek emango dira:

-Lokal berrien lehen hilabeteetako alokairu-kuotak ordaintzeko laguntzak.

-Saltoki eta zerbitzu profesional berriak sortzeko eta modernizatzeko laguntzak.

Jakitun gara sare komertzial eta profesionalak izugarriko garrantzia duela udalerriko ekonomian, eta badakigu, halaber, sare hori ez dagoela bere onenean, gaur egungo atzeraldi ekonomikoa dela eta. Hori dela eta, gure ustez garrantzizkoa da alor hori mantentzeko eta hobetzeko lan egitea, gure udalerria gerora ere eskualdean eredu izan dadin, merkataritza- edota enpresa-proiektu berriak erakarri eta egungoak modernizatu ahal ditzan eta, finean, langabezia-tasak txikitu daitezten eta herritarren artean jarduera ekonomikoa eta aberastasuna sor eta bana dadin.

Programa honen bidez, oinarriko bi laguntza mota hauek emango ditugu: alde batetik, laguntza emango dugu saltoki edo zerbitzu berria abiarazteko, hau da, saltoki edo zerbitzua abiatu ondorengo eta finkatu arteko lehen hilabeteetan; bestetik, saltoki eta zerbitzuak modernizatzen eta hobetzen lagunduko dugu.

1. Xedea

Oinarri hauen xedea laguntza mota hauek arautzea da:

a) **Lehen hilabeteetako alokairu-kuotak** ordaintzeko laguntzak: diru-laguntza bat emango da jarduera komertziala edo profesionala ezarriko den lokal berriaren lehen 6 hilabeteetako alokairua ordaintzeko.

b) Egoitza soziala eta fiskala Zallan duten **enpresa BERRIAK martxan jartzearen edo lehendik dauden enpresak modernizatzearen ondoriozko gastuak** ordaintzeko laguntzak. Honako gastu hauek lagundu ahal izango dira diruz:

- Jarduerarekin loturiko ekipamenduak, altzariak, makinak eta tresnak erostea. Ibilgailuen erosketak ez da hor sartuko, behar bezala errotulatuak ibilgailuen kasuan izan ezik, betiere jarduera gauzatzeko ezinbestekoak direla arrazoitzen bada. Kasu hauetan, ibilgailua beharrezkoa dela justifikatzen duen memoria aurkeztu behar da, baita horri emandako erabileraren eta errotulazioaren dokumentazio grafikoa ere.
- Merkatuaren prospekzio eta azterlanetatik eratorritako gastuak.
- Proiektua abian jartzeak sortutako gastuak (eratzegastuak, erregistroa, markak, patenteak, etab.).
- Negozioa abian jartzearekin lotura zuzena duten zerbitzu profesional independenteak.
- Eramangarriak ez diren informatika-ekipoak (eramangarriak izan behar dutela behar bezala justifikatu ezean), makina erregistratzaileak, kode-irakurgailuak, STak.
- Oinarritzako egokitze-obra (elektrizitatea, iturgintza, argiteria, igeltsero-lanak, arotzeria, pintura eta antzekoak), betiere beharrezkoak badira indarreko ordenantzaren arabera Zalla udalerrian jarduera ekonomiko bat gauzatzeko lokalak ireki ahal izateko.
- Bezeroentzako zerbitzuak dituzten wifi sareak instalatzea.
- Ele bitan idatzitako merkataritza-errotuluak (euskara/gaztelania).

Saltoki/zerbitzu berrien kasuan, gastu horiek diruz lagundu ahal izango dira baldin eta enpresak Jarduera Ekonomikoetan alta eman eta gehienez ere urtebeteko epean eta/edo jarduera hasi aurreko sei hilabeteetan sortu badira (JEZ), betiere negozioa abian jartzearekin lotura zuzena badute.

Enpresa finkatuen kasuan, gastuak diruz lagundu ahal izango dira baldin eta saltokia edo zerbitzua JEZen alta emanda badago eta gastuak oinarri hauetan adierazitako epeen barruan aurkezten badira.

2. Betekizunak.

Enpresa onuradunek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Alokatu eta/edo egokitu beharreko lokalak Zalla udalerrian egon beharko du.
- Jarduerari ekin aurretik, proiektua Zalla udalerrirako bideragarria dela justifikatzeko plana egin behar da, DEMAk lagunduta eta eskualdeko Behargintzaren babesarekin edo enplegurako orientazio-ekintzak egiteko Lanbideko ofizialki baimendutako erakundeekin (enpresa berriak). Plana egitea sustatzailearen ardura da, eta gutxienezko denbora-tarte bat behar da horretarako; aipatutako erakunde horiek aholkularitza emango dute gutxi gorabehera bi hilabeteetan.

- Laguntzen programa honetara aurkeztu aurreko azken bi urteetan ez eten izana Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergako epigrafe bereko jarduera bat Zalla udalerrian.
- okalean egiten den jarduerari gutxienez 18 hilabetetan eutsi beharko zaio, salbu eta arrazoi objektibo eta behar bezala justifikatuengatik eteten bada.
- Enpresak edo erakundeak administrazioen edo erakunde publikoen menpekoak ez izatea edo horiekin % 40ko parte-hartzetik gorako loturarik ez edukitzea sozietate gisa.
- Zerga-arloko betekizunak eskatzen dizkieten herri-administrazioen aurrean dituzten betebeharrak eguneratuta edukitzea, baita Gizarte Segurantzarekin dituzten betebeharrak ere. Zallako Udalak ofizioz egiaztatuko du zerga-arloko egoera.
- EZ DA ESKATZEN ZALLAN ERROLDATUTA EGOTEA

3. Onuradunak.

Honako hauek izan daitezke laguntzen onuradun:

- 2016ko urtarrilen 1etik aurrera Zallan kokatuta dauden edo kokatu diren saltoki eta zerbitzu profesional berriak, mikroenpresa gisa sailkatuta daudenak (10 langile baino gutxiago eta 2 milioi eurotik beherako fakturazioa), haien forma juridikoa edozein dela ere, betiere udalerriko lokalen bat enpresa-jarduera bat ezartzeko alokatzen edo/eta egokitzen badute.
- Goian adierazitako dataren aurretik eraturako enpresak, saltokiak eta zerbitzu profesionalak, betiere 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera modernizazio-proiektu bat hasi edo bukatu badute.

4. Laguntzaren zenbatekoa.

a) **Lokal berrienlehen hilabeteetako alokairu-kuotak** ordaintzeko laguntzak: lokalen lehen sei hilabeteetako alokairua ordainduko da, gehienez ere kostu osoaren % 40ra arte. Edonola ere, kontzeptu honen truke gehienez 2.000 euro emango dira.

b) Egoitza soziala eta fiskala Zallan izanik **lehendik dauden saltoki eta/edo zerbitzuak modernizatzeagatiko gastuak eta saltoki eta/edo zerbitzu berriak martxan jartzeagatiko gastuak** ordaintzeko laguntzak.

Laguntza hau asko jota 3.000 eurokoa izango da, eta inbertsioaren % 40ko edo hortik beherako muga izango du.

Nolanahi ere den, eskaera eta/edo negozio edo saltoki bakoitzeko gehienez ere 5.000 euro emango dira, eta eskatzaile bakoitzak ezingo du laguntza bat baino gehiago eskatu kapituluko.

5. Aurkezpena eta ordaintzeko baldintzak.

Eskaerak deialdiaren baldintzak bete ondoren aurkeztuko dira.

Diru-laguntza oso-osorik ordainduko da eskaera behar bezala aurkeztu ondoren eta Enkarterri Berri Zerbitzuak SLren Administrazio Kontseiluak aldeko ebazpena eman ondoren.

6. Bestelako laguntzekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan araututako laguntzak bateragarriak izango dira erakunde publikoek edo pribatuek ematen dituzten eta kontzeptu berberak diruz laguntzeko balio duten bestelako diru-laguntzekin. Programa honetan ezarritako diru-laguntzek bete egingo dute Europako Batzordearen 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 zenbakiko Araudian (EE) ezarritakoa. Araudi hori Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2006ko abenduaren 28an, eta Minimis laguntzei buruzko EBren Ituneko 87. eta 88. artikuluen aplikazioari dagokio. Halaber, diru-laguntzek bete egingo dituzte araudi horretan gerora egiten diren aldaketak.

Europar Batasunak ezarritakoaren arabera, enpresa jakin bati emandako Minimis laguntzek guztira ez dute gaindituko 200.000 euroko zenbatekoa 3 zerga-ekitalditako edozein epetan. Muga hori ezarriko da, Minimis laguntza mota edo lortu nahi den helburua gorabehera. Muga hori gainditzeko bada, programa honen arabera emandako laguntza gutxiagotu egingo da, gehiegizko zenbatekoari dagokion kopuruan.

Ordaindu beharreko zenbatekoa ez da inola ere benetako kostua baino handiagoa izango, kontzeptu berberetatik jasotako beste laguntza batzuekin batera bada ere. Hori gertatzen bada, Zallako Udalak eman beharreko diru-laguntzaren zenbatekoa murriztuko da; zehazki, gehiegizko kopurua kenduko da.

7. Baliabide ekonomikoak eta lehenespena.

Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak "enpresa-jarduerak sustatzeko laguntzak" izeneko partidaren kargura finantzatu dira (partida hori Sozietateak ekitaldi honetarako duen aurrekontuaren barruan dago).

Partida hori Sozietatearen Administrazio Kontseiluak onartutako beste laguntza batzuekin partekatu ahal izango da, betiere helburu berbera badute.

Partida horretako guztizko zenbatekoa aldatu egin daiteke EBZk hala erabakitzen badu.

Eskaerak aurkezteko epea Sozietateak deialdi hau webgunean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da, behin EnkarterriBerriZerbitzuak SLren Administrazio Kontseiluak laguntza hau onartzen duenean.

Laguntza-eskaerak ebazteko, eskaerak erregistratu zireneko hurrenkera zorrotza hartuko da kontuan, betiere behar bezala beteta badaude eta espedientea osorik badago, eta Sozietateak laguntza mota hauetarako ezarritako zenbatekoaren mugaraino.

8. Eskaerak aurkeztea.

Eskaerak, beharrezko dokumentazioarekin batera, Zallako Udalaren Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan (HAZ) aurkeztuko dira (Kosme Bibanko 2, Zalla), edo, bestela, ZALLALAN zerbitzuan (El Longar auzoa 1, 1. sol., Zalla). Aintzat hartuko da Herri-administrazioen administrazio-prozedura erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua soil-soilik ondore hauetarako xedatzen duena.

Eskaerak aurkezteak esan nahi du oinarri hauek onartzen direla.

Edonola ere, eskaerak aurkezteko azken eguna dagokion urteko azken laneguna izango da.

9. Eskaerarekin aurkeztu beharreko agiriak.

a) Eskaera-eredu normalizatua, deialdi honen eranskinean jasotakoa, eta enpresa edo erakundearen ordezkariak sinatua. Honako hau adierazi beharko da bertan:

- Eskaeraren xede den laguntzamota (alokairuaren kuotak, saltokia/zerbitzua sortzea/modernizatzea).
- Zinpeko aitorpena, adierazten duena laguntzen deialdi honetako oinarriak ezagutzen eta onartzen direla.
- Zinpeko aitorpena, adierazten duena erakunde eskatzailea ez dagoela sartuta diru-laguntza publikoak itzultzeko prozeduretan edo zehapen-prozeduretan.

- Zinpeko aitortpena, adierazten duena erakunde eskatzailea ez dagoela zehatuta zigor- eta administrazio-arloan diru-laguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galtzearekin eta ez dagoela hartarako ezgaitzen duen legezko debekuen eraginpean, sexu-diskriminazioaren ondoriozko debekuak barne, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin bat.
- Jarduera berbererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatutako edo horietatik jasotako laguntzen zinpeko aitortpena.
- Zinpeko aitortpena, adierazten duena bete egiten dela Minimis laguntzen araua, bat eginez Europako Batzordearen Minimis laguntzei buruzko 2006ko abenduaren 15eko 1998/2006 Araudian (EE) ezarritakoarekin (araudi hori Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2006ko abenduaren 28an, eta horren bidez ordezkatu egin zen 69/2001 Araudia –EE–) eta araudiaren ondorengo berrikuspenekin.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatea adierazten duen zinpeko aitortpena.
- Zinpeko aitortpena, egiaztatzen duena zerga-erolden epigrafe bereko jardueraren batean ez dela egin etenaldirik Zalla udalerrian, oinarri hauek argitaratu ondoren.

b) Eskatzailearen identifikazioa.

Eskatzailea pertsona fisikoa bada:nortasun-agiri nazionalaren fotokopia.

Pertsona juridikoen kasuan:identifikazio fiskaleko txartelaren kopia, nortasun-agiri ofiziala eta eskatzailearen ordezkari-tz-boterea, baita enpresaren zein erakundearen eraketaren eskrituren fotokopia, gerora egin diren aldaketekin, eta dagokion erregistroetan izena emanda daudela frogatzeko agiriak.

Berezko nortasun juridikorik gabeko sozietate zibilen kasuan, Foru Ogasunak zigitatutako kontratu pribatua gehituko da.

c) Hirugarrenen altaren dokumentua, erakunde eskatzaileak eta banku-erakundeak sinatu eta zigitatutakoa (laguntza helbideratzeko banku-datuen inprimakia, Eskaera Eredu Normalizatuari jarraikiz egina, eta emandako diru-laguntza itzultzeko kontuen karguarena).

d) DEMAREkin, eskualdeko Behargintzaren laguntzarekin edo Lanbidek baimendutako enplegurako orientazio-zerbitzuekin egindako bideragarritasun-plana. Plana jarduerari ekin baino lehenago egin behar da (saltoki/zerbitzu profesional berriak).

e) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren altaren ziurtagiria.

f) Enpresari edo erakundeari Gizarte Segurantzaren alta emateko agiriaren kopia.

g) Lokalaren alokairu-kontratuaren kopia. Bertan berariaz adierazi beharko da alokairu-kuoten zenbatekoa (alokairurako laguntzak).

h) Alokairuaren lehen sei kuotak ordaindu direla justifikatzeko bankuko ziurtagiriak (alokairurako laguntzak).

i) Gastu eta faktura originalen zerrenda (bertan konpultsatuko dira); enpresak sortzeko laguntzen kasuan, ordainagiriak ere aurkeztu beharko dira.Jarduera abiarazi aurreko sei hilabeteen eta jarduera abiarazi ondorengo sei hilabeteen artean sortu diren fakturak.

Eskatzaileak baterako aitortpenean jasotako datuen bat faltutuzen badu, dagokion zehatzeko erregimena aplikatu ahal izango zaio.

10. Akatsak zuzentzea.

Deialdian, oinarri espezifikoean eta indarrean dagoen legezko araudian ezarritako betekizun guztiak betetzen ez badira, interesdunari idatziz eskatuko zaio akatsak zuzentzeko. Horretarako, gehienez ere hamar eguneko epe luzaezina izango du, eta jakinaraziko zaio okerrak zuzendu ezean bere eskaera ez dela aintzat hartuko.

11. Eskaerak aztertzea eta ebaluatzea.

Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk diru-laguntzak emateko prozeduretarako ezarritako Jarraibide Orokorretako 9. artikulutik 11.era bitartekoetan xedatutakoa aplikatuko da.

12. Laguntza emateko ebazpena.

Ebazpenaren jakinarazpena Enkarterri Berri Zerbitzuak SLren Administrazio Kontseiluko buruak sinatuko du. Jakinarazpenean, halaber, Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk diru-laguntzak emateko prozeduretarako ezarritako Jarraibide Orokorretako 9. artikulutik 11.era bitartekoetan xedatutakoa adieraziko da.

Sozietatearen webgunean emandako diru-laguntzen eta ukatutakoen zerrenda bat argitaratuko da, eta bertan berriaz adieraziko da diru-laguntzak zergatik baztertu edo ukatu diren, deialdi hauen 15. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Deialdian onuradun izateko ezarritako baldintzei dagokienez, berriz, kredituaren gehieneko zenbatekoa gainditu dela-eta kontuan hartu ez diren eskaeren zerrenda ere ebazpenean jaso beharko da, Diru-laguntzei buruzko Araudiaren (887/2006 ED) 63.3.artikuluari jarraikiz. Erabaki berri baten bidez, beste diru-laguntza batzuk eman ahal izango dira ezetsitako eskaera horien zerrendako lehentasun-ordenari jarraituz, betiere onuradun batek berriaz uko egiteagatik liberatutako kreditua amaitu arte.

Horri dagokionez, berriaz uko egin dela ulertuko da oinarri hauetan ezarritako baldintzetako edozein betetzen ez bada.

13. Erakunde onuradunen betebeharrak.

Laguntza hauek jasoko dituzten enpresa, profesional eta erakundeek betebeharrak hauek izango dituzte:

a) Emandako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, laguntza onartutzat joko da, baldin eta erakunde onuradunek berriaz eta idatziz uko egiten ez badute, diru-laguntza emango dela jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasi eta hamabost eguneko epean.

b) Laguntza honen xedea betetzea.

c) Ez jartzea eragozpenik Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk edota estatuko zein erkidegoko kontrol-organismoek egin behar dituzten egiaztatze guztiak eta finantza-kontrola gauzatzeko. Hori dela eta, egintza horiek betetzean eskatu ahal zaien informazio guztia eman beharko dute.

d) Kontabilitate-liburuak, izapidetutako erregistroak eta behar bezala ikuskatutako beste dokumentu batzuk edukitzea, onuradunari ezar dakioken merkataritzari buruzko eta sektoreko legediak ezarritakoak. Halaber, laguntzen oinarri arautzaileek ezarritako kontabilitate-egoerak eta erregistro espezifikoak eduki behar dira, egiaztapen- eta kontrol-jarduerak erabat bermatzeko.

- e) Enkarterri Berri Zerbitzuak SLri jakinaraztea baldin eta aurretik bestelako laguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak lortu badira laguntzen xede diren jarduerak finantzatzeko. Jakinarazpen hori idatziz egin behar da, ebazpenaren berri izan eta hurrengo hamar egunetan.
- f) Diru-laguntza emateko kontuan izandako alderdi objektibo nahiz subjektiborik aldatu bada, horren berri eman beharko zaio Enkarterri Berri Zerbitzuak SLri.
- g) Enkarterri Berri Zerbitzuak SLri beharrezko informazio edo dokumentazio osagarria ematea laguntza-eskaera ulertzeko eta ebaluatzeko.
- h) Jasotako funtsak itzultzea deialdi honek ezartzen duena bete ezean.
- j) Hala badagokio, Zallako Udalarari jarduera eten egin dela jakinaraztea hilabeteko epean.

14. Ikuskaritza.

Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk diruz lagundutako jarduerari buruz egoki iritzitako ikuskapen eta egiaztapenak egin ditzake, eta enpresa eta erakunde onuradunek eskatutako informazio osagarria eman beharko dute.

15. Diru-laguntzak argitaratzea.

Aurkezpen-epea amaitzean eta behin eskaera guztiak ebazten direnean, eman diren diru-laguntzen zerrenda argitaratuko da Sozietatearen webgunean, bat eginez Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 18. artikularekin eta Lege hori onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak 30. artikuluan xedatutakoarekin, eta deialdi honen 11. artikuluan zehaztutakoa betez.

16. Diru-laguntzaren baldintzak aldatzea.

Diru-laguntza ematean kontuan hartutako baldintzak aldatuz gero, emakida-ebazpena ere aldatu egingo da, betiere arau honetan onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak gordetzen badira. Horretarako, Enkarterri Berri Zerbitzuak SLren Administrazio Kontseiluak aldatzeko ebazpena egingo du, eta horrek berriro ere doituko ditu emandako diru-laguntzen zenbatekoak.

17. Diru-laguntzak itzultzea.

Jasotako zenbatekoak itzuli beharko dira, diru-laguntzak ordaindu zirenez geroztik bidezkoak diren legeko interesekin batera, erakunde onuradunek deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen ez badituzte. Baldintzok esleipen-ebazpenean eta aplika daitezkeen bestelako arauetan daude jasota. Dena dela, arau-hauste horren ondorioz bestelako ekintza batzuk ere abiarazi ahal izango dira.

Honako hauek izango dira itzultzeko arrazoiak:

- Diru-laguntza ezarritako baldintzak bete gabe lortzea.
- Diru-laguntzaren helburua ez betetzea.
- Justifikatzeko betebeharra ez betetzea.
- Diru-laguntza ematean onuradunari/onuradunei ezarritako baldintzak ez betetzea.
- Kontrol-jarduerari uko egitea edo horiek oztopatzea.

-Diru-laguntzak garatutako jardueraren kostua gainditzea. Halakoetan, diru-laguntzaren gehiegizko zatia itzuliko da.

-Halaber, Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk diru-laguntzak emateko prozeduretarako ezarritako Jarraibide Orokorretan xedatutakoa aplikatuko da (diru-laguntzak itzultzeari buruzko atalak).

18. Ordezko araubidea.

Deialdi honetan aurreikusi ez diren kasuetan, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen araudia aplikatuko dira, baita Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk diru-laguntzak emateko prozeduretarako ezarritako Jarraibide Orokorrak ere.

19. Datu pertsonalak babestea.

Enkarterri Berri Zerbitzuak SLk jakinarazten du, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoarekin bat eginez, eskatzaileen datu pertsonalek tratamendu automatizatu izan dezaketela eta Zallako Udaleko informazio-sistemetan eta haren erakunde autonomoetan bilduko direla. Datu horiek udal-kudeaketarako soilik erabiliko dira, eta beste administrazio publiko batzuei edo hirugarrenei laga edo jakinarazi ahal izango zaizkie Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusitakoa gertatzen denean. Interesdunek datuetarako sarbidea izateko, datuak zuzendu nahiz baliogabetzeko edo datuen aurka egiteko eskubideak baliatu izango dituzte, Udalaren informazio- eta erregistro-zerbitzuaren bidez.

Laguntzen programan parte hartuz gero, litekeena da jakinarazitako datu pertsonalak administrazio publikoei edo Zallako Udalarekin lankidetzan ari diren erakundeei uztea eta zabalkunde orokorreko bitartekoetan ere argitaratzea.

20. Baliabide ekonomikoak.

Diru-laguntza hau osatzen duten funtsak mugatuak dira eta ekitaldi bakoitzean Sozietateak xede horretarako eskuragarri dituen baliabide ekonomikoen arabera izango dira.

21. Azken xedapena.

1. Diru-laguntzen deialdia Enkarterri Berri Zerbitzuak SLren Administrazio Kontseiluak deialdia onetsi eta Sozietatearen webgunean argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.
2. Enpresa edo erakunde interesdunek eskaera aurkezteak esan nahi du oinarriak erabat onartzen dituztela.

Zallan, 2017ko uztailaren 28an.

Javier Portillo Berasaluce, Enkarterri Berri Zerbitzuak SLko burua.